

## 6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA ESKAINTZEKO PROGRAMA

Gizarte Ekintzako Sailak genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzua du eta honen barruan bai biktimen arretarako bai bortizkeriaren aurkako prebentziorako programa desberdinak garatzen dira.

### INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ARRETA PROGRAMA

Programa honek **informazioa eta laguntza ematen dizkie genero indarkeriaren biktime izan diren pertsoneri**, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren eta beste departamentu edo instituzio batzuen baliabideak erabilia. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnostikoa egin eta esku-hartze plan bat adosten dute biktimarekin, hainbat bitarteko erabil ditzakeena: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza mailako laguntza, kulturen arteko bitartekaritza eta bizileku baliabideak.

2020an, 216 pertsona berri, hau da, aurretik zerbitzuan artatu gabeak, artatu ziren:

- Indarkeria matxistaren biktimak: 174
- Familia barneko indarkeria: 15
- Sexu indarkeria: 15
- Beste kasu batzuk: 12

Aurten lehen aldiz programara jo duten emakumeen artean tratu txar mota hauek identifikatu dira:

Tratu txar fisikoa	107
Tratu txar psikologikoa	184
Tratu txar ekonomikoa	17

*Oharra: Emakumeek tratu txar mota bat baino gehiago pairatu ohi dutenez, tratu txarren batura handiagoa da laguntza jaso duten emakumeen kopurua baino.*

**2020an lehen aldiz artatu diren 216 pertsona berri horietaz gain, aurreko urteetatik artatzen ziren beste 227 emakumerekin ere jarraitu dugu lanean.**

**Beraz, guztira, 443 izan dira genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko programan artatu diren emakumeak.**

Ondoko taulan, programara jo dutenek emakumeek 2020an jaso dituzten laguntzak eta baliabideak ikus daitezke:

Laguntza psikologikoa	145
Laguntza soziojuridikoa	35
Aholkularitza eta informazioa	216
Larrialdietarako etxebizitzak (udalarenak)	6
GFAREN etxebizitzak – Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera	5
Larrialdiko txekea	31
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	17

Emakumeei lagun egitea	49
------------------------	----

*(\*) Laguntza hauez gainera, hala badagokie, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak izapidetu edo kudeatzen dituen gainerako diru laguntzak ere eskura ditzakete emakumeek (Gizarte larrialdietarako laguntzak, eta Lan Partekatuaren Planeko laguntzak).*